

gipuzkoan
gazte.eus



NERABEAK eta HERRITARTASUN DIGITALA Proiektua. Instant1ean



Instant1ean

Zer da?

Instant1ean Gipuzkoako nerabeen artean teknologia berrien arriskuak prebenitzeko programa da. Egitasmoa Foru Aldundiko Gazteria zuzendaritzak eta Gipuzkoako gaztelekuek bultzatu dute, elkarlanean, nerabeekin batera iritzi kritikoa eta eztabaida prozesuak sustatzeko. Instant batean proiektuaren azken helburua da gazteek teknologiaren

erabilerari dagozkion portaera eta jarrera egokiak barneratzea, Interneten ondo nola jokatu ikastea, eta sarean beren eskubideak eta betebeharrak zein diren argitzea.

Nerabeek prozesuan zehar landu ditugun balio eta portaera egokiak bere egin ahal izatea nahi dugu, modu ahalik eta praktikoenean. Proiektu zabala da, pedagogikoa izan nahi duena, eta hainbat alderdi ditu: gaiari buruzko hitzaldiak, nerabeekin lantzeko tailerrak, www.gipuzkoangazte.eus webgunean atal propioa, eta baita lehiaketa bat ere.

Programa 13-17 urte arteko adina duten Gipuzkoako gazteentzat da.



Zer asmo ditu proiektuak?

Nerabeekin lan egiten duen edo haiekin harremana duen pertsona orori gai eskura jarri nahi dio gaiari buruz baliagarria izan daitekeen informazio guztia: adibidez, nerabeek sarean izan beharreko portaera egokiak, irudiei buruzko aholkuak, sarean topa ditzaketen arriskuak, edo beren eskubideak eta betebeharrak.

Herritartasun digitala:

“Herritartasun digitala teknologiaren erabilerari dagozkion portaerak eta jarrerak dira. Interneten nola jokatu ikasi behar dugu, bai helduok eta baita nerabeek ere; gure eskubideak eta betebeharrak zein diren argi izan behar dugu.

Nerabeek jarrera kritikoa eta gogoetatsua izatea esan nahi du; azken batean, gizartean adostutako jokabideak eta arauak sarean ere errespetatzea, giza eskubideak sarean ere zaintzea.”

Zertan lagundu behar diegu?

- Eskura dagoen informazioa balioztatzen eta egiaztatzen.
- Gizartean adostutako jokabide-arauak sarean ere errespetatzen.
- Autonomia garatzen, baina sarean nola jokatu ikasi behar dute.
- Mundu digitalaren eta errealareb arteko desberdintasuna bereizten, betiere pertsonen duintasunean oinarrituta.
- Teknologia berrien aurrean ikuspegi kritikoa garatzen.
- IKTen arloko tresnak, baliabideak eta jarraibideak erabiltzen (webgunean eskuragarri)
- Herritartasun digitalaren definizioa barneratzen.
- IKTekin lotutako portaera egokiak barneratzen (webgunean eskuragarri).
- Jakintzak eta gaitasunak garatzen.

Nola egin dezakegu?

Nerabeekin harremana duen edozeinek erabil ditzake materialak proiektua garatzeko. Bai materiala bai eta informazioa ere eskuragarri daude web-orrian: lan-fitxak, difusio-kanpaina nola egin, lehiaketan nola parte hartu, sareko portaera egokiak...

Argi utzi nahi dugu ez dela lehiaketa soil bat, beste elementu asko biltzen dituen gunea baizik. Hona hemen deskribapen labur bat:

Tailerrak: Lehiaketa ireki aurretik, nerabeekin lan-saioak/tailerrak egingo ditugu, zeharkako gaiak lantzeko haientzat egokitutako dinamika erakargarriekin. Lan-fitxak prestatu ditugu saio horietarako. Web-orrian deskargatu ahal izango dira [lan-fitxak](#). Nerabeekin egindako tailerretan ondokoak izango dira jarraibideak:

- Gazteei hitza emango diegu.
- Gazteentzat iradokitzaileak izan daitezkeen joerak aurkeztu eta adibideak erakutsiko dizkiegu (erabilera egokiak eta jokaera txarrak ere bai).
- Partaidetzazko dinamika erabiliko ditugu.
- Lan-fitxak arratsalde batean edo bitan egiteko izango dira.

Lehiaketa: 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat da. Lehiaketaren xedea da ikus-entzunezko produkzioen bidez erakustea neska eta mutilek badakitela teknologia ondo erabiltzen. Instagrameko argazki-lehiaketa bat da; eta parte-hartze positiboa, originaltasuna eta balio onak sustatzeaz gain, nerabeak inplikatzeko lortzen du. Lehiaketaren traola *#instant1ean* da.

Hitzaldiak eta mahai-inguruak: Ekimen hau beste espazio batzuetara ere zabalduko da. Gipuzkoa mailan mahai-inguru bat egingo da, baina udalerrri bakoitzak, gainera, hitzaldiak antola ditzake gaian adituak direnekin; edo herrian erreferentziazkoa den gazte bat (aktiboa, kirolaria, artista...) sare sozialetan izan dituen esperientzia onak kontatzera.

Sari-banaketa / Topaketa: Amaieran egingo da. Garaile gertatzen diren nerabeak elkartzen saiatuko gara.

Ekimen honek aurrera egin ahala, beste espazio batzuk ere aktibatuko ditugu: webgunea, mahai-inguruak, topagunea, sari-banaketa,...

Materialak eskuratzeko aukera:

www.gipuzkoangazte.eus/eu/gure-programak/instant1ean/materialak

Deskargatu, erabili edo inprimatu behar dituzun materialak erabiltzeko.



Lan-fitxak nerabeekin lantzeko



10 portaera egokiak sarean



IKTak egoki erabiltzeko orientazioa



herrian kanpaina nola egin?



Kartela



Diptikoa



Spot-a